

**HOGOITA BOST URTEAN ZEHAR  
“KARMEL” ALDIZKARIKO ZUZENDARI DOGUNARI  
JULEN URKIZA TXAKARTEGI JAUNARI**

Aurtengo **KARMEL**en bigarren zenbakia (hau da, maiatze-koa) berezia izango dogu, JULEN URKIZAk aldizkari honen zuzendari lez 25 urte bete ditulako. Aurretiaz, JULEN, **ZORIONAK** zuri eta **KARMEL** posible egin dabean guztiei 77 urteetan zehar.

Noizbehinka bertako idazlari izan garanok zertxobait esatera gonbidatuta gagozanez gero... hiru puntu nahi dodaz azpimarratu jazoera pozgarri honetako partaide lez, danon parte hartzeaz era egoki baten zoriondurik ospatu daigun.

1. Hasiera bateko eta gaurdainoko (1931-2008) gogo eta asmoei **eutsi dautsezuezalako euskera gordez, zainduz eta landuz.**

Bai, jakitun gara zeintzuk eta zelakoak jasan izan behar zenduen zuon Ordenan jarrera hau zala eta dala.

Baina kanpotik jatorkuzan krisiak indartu egiten gaitu geure altxorra doguna gordeteko, aberasteko eta behin eta barrero, ekinaren ekinenez, zabaltzeko. Egia esan, gertakizun honen ondorio luzea ekarri dau eta, ikusten dogunez, bere garrantzizko eragina. Iraganean zintzo jokatzuz gero... etorkizuna bere oraingora heltzen da.

2. **KARMEL zabal eta bultzagile bat** ezagutu ahal izan eta ezagutzen dogulako. **Zabala** bere gaietan eta zabala bere idazleetan. Egia bera bat dan lez, baina egia horren edertasuna eta osotasuna giza mailako ikuspuntu ugariak buztartzean datzanez gero, bakoitzak beretik ipini dau (“Zenbat buru, hainbat aburu”) eta zabalik gelditu da beste inoren erantzunik baletor.

“**Zabala eta bultzagile**”. **Zabala** izateari buruz zeozertxo esan dot. Eta orain, bai, benetan **bultzagilea**: atea zabalik eta esker onez gainera. Euskal kulturako erraldioen artean... hasiera baten genbiltzanon idazlan edo artikulua argitaratuz. Zelako lotsa... baina zelako ohorea, tokatu ez arren! Eskerrak euren iritzi baikorrari aurrera jarraitzen auzartzen ginan. Hori bai zala pedagogia: haundia zanak txiki, xume eta apal urreratu... txikiak ginanok (eta garanok) haundi sentitu gaitezen.

Eta puntu honeri amaiera emoteko, “**zabala eta bultzagilea**” euskalkiak behar eben -eta behar daben- begirunea onartuz bakarkako jokaerea inposatu barik sasoi hareitan beste batzuk egin eben lez. Sarritan denborak badaki zer non ipini...

3. Hiru zertzelada honeei azkena emoteko hauxe azpimarratu nahi neuke: Batez be, espiritualitateari, fedeari eta kristau bizitzari **KARMEL**ek emon dautson garrantzia. Lehen, beharbada, giroa horrexetara zuzenduta egoan, baina azken bolada honeitan esparru sustraisueta sortu izan diran hainbat eta hainbat iritzi eta ekintza harrigarrien aurrean... eskertzekoa da berak egin dauan bide-argitza.

Zer esanik ez, Karmelitak euren hasierako iturrietara bihurturik, zelan egin daben **KARMEL** aldizkaria bera, Andra Mariaren

–**KARMENgo AMAREN**- onerazpenaren hedarazle sutua. Jesusek, kurutzetik, zeozergaitik emon euskun Amatzat.

Besteko barik, hona hemen une honetarako neure bihotzaren taupadak. Zitur nago beste idazlan burutsuagoak agertuko dirana. Hasiera baten esan dodan lez, baziran -eta zorionez baidira gure artean euskerari dagokionez- benetako erraldoiak. Atseginez irakurriko doguz euren lanak.

ZORIONAK!!!

Kepa Agirre Zelaia. Abadea.